

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideak, ahalbidetuko digute gure balio proposameneko garatzera, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru- sarrerak zortzea.

Baliabide fisikoak :

- Ordenagailuak: Plataforma egiteko ordenagailua erabiliko dugu.
- Webgunea: Webgune bat sortu dugu aplikazioaren informazioa ipintzeko. Gure bezeroek webgunean ikusiko dute zenbait plan egiteko.
- Sare sozialak: Sare sozialetan ere kokatuko dugu informazio guztia eta han bezeroekin harremanetan jarriko gara.
- Publizitatea: Aplikazioan jarriko dugu, planak egiterakoan bezeroek nora joateko jakin dezaten; adibidez, jatetxe baten publizitatea.

Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:

Gure sormena, informatikako eta webguneak diseinatzeko ezagutzak eta salmentarako eta antolaketarako abileziak.

Asier Antunez informatikako titulazioa du, Itziar Zubia harreman publikoetan aditua da.

Beste batetik, Leyrek webgunea eta newslettera diseinatuko du. Azkenik, Maialen bezeroarekiko arretan lan egingo du.

Hobetzeko aukera:

Gure aplikazioa perfektionatzeko gaitasuna. Edozein baliabide hobetu egin dezakegu gure ikuspuntutik ikusita, honako galdera egin behar dugu: zenbateraino interesatzen zaigu enpresa edo organizazio baten funtsezko baliabideetan hobekuntzak egitea? Jendeak ahalik eta erosoena sentitzea aplikazioan eskaintzen dugunarekin eta pertsona guztientzat erraza izatea gurekin edo aplikazioarekin harremanetan jartzea.

Finantza- baliabideak:

- DEMA (Negozioaren ideia garatzen eta ezartzen laguntzen duen programa 5000 euroekin)
- Banku maileguak
- FFF: (Family, Friends and Fools) inbertsoreak, senideak, lagunak eta ekintzailearekin lotura duten pertsonak osatzen dute finantzaketa talde hau. Txinatarrek asko erabiltzen dute negozioak irekitzeko, horrela ez dira banku-maileguetan sartu behar eta ondorioz ez dituzte interesak ordaindu behar.
- Crowdfunding: Inbertsore txikiek gure proiektua ezagutuko dute eta haiek dohaintzak emango dizkigute interesatuta badaude.